

...eta

kirol KITTO!

915 zkoa.
2015-I-16



Jon Errasti
**Izarrei
aurpegira
begiratzen**

ORAIN DUZU AUKERA!

matrikula zabalik

www.aek.eus



Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379

eibar@aek.org



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Euskara jakitea ez da beharrezkoa izango Donostiako Euskararen Aholku Batzordean egoteko". Horrelako berriek ezin hobeki irudikatzen dute gure inguruko txistularitasuna. Ez da gauza berria euskararen kontuak ahotan dituzten erdaldun zenbaiten euskararekiko maitasun platonikoa: zenbat eta urrunago, hainbat maiteago"

(BENAT SARASOLA,
OLERKARIA)

"Ez dut orokorrean hitz egin nahi, baina zenbait enpresaburu erosoago daude bekadunekin soldatapekoekin baino"

(JOSU ERKOREKA,
JAURLARITZAKO BOZERAMAILEA)

"Islama kritikatea izan da Charlie Hebdo-ren ikurra azken aldian. Ez du kuraria bera erakutsi judaismoa kritikatzeko: 2008an Maurice Siné marrazkigilea kaleratu egin zuten antisemita ei zen komikia egin eta barkamenik ez zuelako eskatu. Elite zuri bateko artistak besterik ez dira, gutxiengoan sinesmenen aurka jotzen dutenak"

(YAZAN AL-SAAD,
ZAL AKHBAR-eko ZUTABEGILEA)

"Zahartzeak hezurrak ahultzen dituela uste bazen ere, hezurren ahultzeak dakar pertsonaren zahartzea. Erabilpenaren ondorioz mantentzen dira hezurrak eta gorputzeko beste egiturak indartsu, makinei gertatzen zaien alderantzizkoa. Inolako estresik gabeko oreka iraunkorrera ailegatzeko bide bakarra heriotza da; bizitza etengabeko desoreka delako"

(OIER GOROSABEL,
FISIOTERAPEUTA ETA OSTEOPATIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

KERIZPIAN SARTU.- Kartzelan sartu, preso hartu. "Egixak esaten zittualako, kerizpian sartu eben".

KERRUA.- Punta zorrotza. "Kerruan jota salto erañ txirikillari, makilliagaz ondo hartu eta urriñera eruateko".

KESOKEMAUA.- Flana. "Gaur domekia danetik, postrian kesokemaui jango dogu".

eskutitzak

TXAKURRAK UGALTZEKO KANPAINA EIBARREN?

Badira hiru egun hosto gaizto baten azpian zegoen txorongoa zapaldu nuela. Atzo nire alabak zapatak txakur kakaz zikinduta ekarri zituen etxera, eta gaur oinezko zintzok nahigabe zapaldu eta kalean zehar lagatako arrastoak saihestera jolasean ibili gara semea eta biok. Edo bat: Eibarren txakurrak ugaltzeko kanpaina bat hasi dute. Edo bi: jabeek euren txakurrek beherako arazorik ez dutela erakutsi nahi digu-

te. Kontua da inoiz baino txakur kaka gehiago dagoela kalean eta, jabeen animaltasunaren aurrean, ez dakit Udalak neurririk hartzeko asmorik duen. Zailena kakaren egilea identifikatzea da, herriko txakur guztien ADNaren errolda egin ezean; baina, hasteko, "in fraganti" harrapatzen den jabeari 5.000 euroko isuna jartzea proposatzen dut.

KEPA ALTUNA GOMEZ

UME ETA GURASO, ETORRI SANTA AGEDAKO KALEJIRARA!

...eta kitto! Euskara Elkartek, orain dela urte batzuk egin izan zuenari jarraituz, berriz ere heldu nahi dio Santa Agedako kalejirari. Eibarren, Santa Ageda bezperan, hainbat kalejira egiten dira, jakina, baina ...eta kitto!-k ume eta gurasoei elkarrekin etortzeko deia egin nahi die. Gurasoak Berbetan mintzapraktikako kideek hala eskatuta antolatuko dugu kalejira, otsailaren 4an. Arratsaldeko 19.00etan Ibarcurtuzetik

abiatuko gara, Urkizuraino, eta ...eta kitto!-n piskolabisa janean amaituko dugu eguna. Urtarrilaren 30ean ensaioa egingo dugu 17.30etatik 18.30etara ...eta kitto!-n bertan. Bai ensaiorako bai kalejirarako, baserri-tar jantzita joatea, edo lepoan zapia eramatea eta makila ekartzea eskatzen dizuegu. Animatu zaitezte, eta ospatu Santa Ageda ...eta kitto!-rekin batera.

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

WEBGUNA BERRITZEKO LANTALDEA OSATZEN

2015ean ...eta kitto! astekariak webgunea berritu nahi du. Ikusgarria eta eskuragarria izatea du helburu. Gainera, eibartar guztien parte-hartezari bidea egingo dio "Komunitatea" atalaren bitartez. Atal horretan norbanako edo elkarteek euren argazkiak, bideoak, artikulak eta komentarioak gehitzeko aukera izango dute.

Diseinua eta eduki guztia software librean erabiliz sortuko dugu informatika-aditu baten laguntzarekin. Gailu desberdinetan (smartphonak, tabletak...) ondo ikusteko moduko diseinua egingo dugu, Responsive Design-en teknikak erabiliz.

Lerro hauen bidez gonbitea egin nahi die ...eta kitto! astekariak informatika gustoko duten eta proiektu honetan parte hartu nahi duten eibartarrei. Lan taldean parte hartzeko ez da beharrezkoa teknikaria izatea, baina bai html eta css kontuetan trebea izatea. Linux terminala edo ssh konexio remotoa erabiltzen baduzue, hobeto! Aukera paregabea izango duzue gauza berriak ikasteko.

Informazio gehiagorako: 943 20 67 76 edo komunikabideak@etakitto.eus

...ETA KITTO! ASTEKARIA



Euskara Elkartea

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /

publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi

eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gure Esku, erabagixa ehuntzen

Aste honetan, martitzenian Gure Esku Dago ekimenaren presentaziñua egin eben Portalean, Eibarko Gure Esku Dago herri ekimeneko partaidiak datozen hillebetiotan egin nahi dittuenen barri emoteko. Iazko ekaiñian erabagitzeko eskubidiaren alde egindako giza-kataiak izan eban arrakastia eta gero, aurten ekaiñaren 20rako beste ekitaldi bat preparatzeko biharriari hasi dira: "Egun horretan hiri-buruetan hautesontzi erraldoiak osatuko dittugu. Hautesontzi erraldoi hórretxek, norbere atxikimendu personala alkarri jositza osatuko dogu eta, horretarako, oihal zatixak erabilliko dittugu. Erabagitzeko eskubidiaren aldeko sarea josi genduan

iaz eta aurten horretan sakonduko dogu. Oihal unidade baktioxian hogeia lagun atxikituko dira. Baktioxak gure oihal zatixa eukiko dogu eta nahi doguna idatzi edo marraztuko dogu bertan. Atxikitzerakuan, gure oihal zatixa personalizatiaz gain euro bat ordaindu eta saretu txartela beteko dogu. Hamasei urtetik beherakuak, bestalde, oihal zatixa marraztu eta eurua ordaindu eta gero, ez dabe saretu txartela bete biharrik izango. Gaiñera, oin arte aillegatu ez garan jendiaren-gana aillegatzeko, tutoriaren figura sortuko dogu. Holan, herriko foball taldeko

kide batek bere talde guztia atxikitzeo arduria eukiko dau edo enpresa bateko bihargiñak lankidiak bat egittera animauko dittu... Dinamikaren barruan, urte osuan zihar hainbat ekintza garatuko dittugu, desberdiñen arteko alkarlana jositza erabagixa ehuntzeo asmoz. Apirillaren 25a ehuntze eguna izango da eta egun horretan, herririk herri eta auzorik auzo, ordura arte bildutako oihal zatixak josiko dittugu". Informaziño gehixagorako gureeskudago.eus helbidera jo leike.



Ehundik gora lagun Gureak-eko bazkarixan

Urteroko moduan, aurten be Errege osteko zapatuan Gureak lan-tegikuendako bazkarixa antolatu eben Auzokoak, Bekuak, Denon Sahatsa, Dorrepe, Edozer, Erdi Bana, Jaiki eta Urkusu-Gainek osatzen daben Urkizuko alkarte gastronomikuen batzordekuak. Betiko moduan, boluntariak sukaldatutakua edarto jan eben eta, bazkalostian, bazkarira juandako ehun bat lagunak herriko hainbat alkarte eta enpresak emondako oparixak pozarren jaso zittuen, dantzaldixarekin hasi aurretik. Aurtengua 35. ediziñua izan da eta Josu Mendikutek, antolatzaillien izenian, eskerrak emon nahi detsez zapatuan bazkarixan musutruk biharriari jardun eben hama-zazpi laguneri, baitta oparixak emoten lagundu daben guztieri.



Erorikuak prebenitzeko taillarra

Udaleko Gizartekintzak eta osasun-zentruak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saillarekin alkarlanian, "Eroriketak prebenitzeko taillerra" antolatu dabe 64 urtetik gorakuendako. Bi saio teoriko-praktiko egingo dira, urtarrillaren 26xan eta otsaillaren 2xan, Untzagako jubilaru etxian 16.30xetatik 18.00etara. Taillarrian, bestiak beste, erorketen zergatixa eta hórretxek saihesteko zer egin leikian azalduko dabe eta, horrekin batera, bizimodu osasungarrixa eta ariketa fisikua egittiaren garrantzixaz eta teleasistentziari buruz be jardungo dabe berbetan. Izen-emotia duan da eta urtarrillaren 25era arte egin leike, zuzenian anbulatori-xuan edo, bestela, 943 201074 telefono zenbakira deittuta.

JUNCAL RAMOS ANABITARTE

(2015eko urtarrilaren 7an hil zen, 40 urterekin)

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

ZURE LAGUNAK



Jaso dabe ...eta kitto!-ren otarra

Martitzen arratsaldeko lehen orduan jaso eban sarixa ...eta kitto!-ren Gabonetako otarraren irabazliak: argazkixaren ezkerreko aldian ikusten dozuen Ana Belen Vila, 10.115 zenbakidun txartela eskuan zekala, El Corte Ingles-era jua zan 2.000 euro balixo dittuan Gabonetako otarra jasotzera eta, sarixa hartuta, pozarren egin eban etxerako bueltia. Premixua jasotzeko ipiñitta eguan epia beteta saridunik ez agertzian, aurtengo otarra lehen ordezkua eruan dau. Zorionak eta on egin!



autuan

AGIRREREN HITZALDIXA

Eibarko EAJ-k herri partaidetzari buruzko ordenanza lantzen dihardu, "eibartarren proposamenak udal erabagixetan eragin haundixagua eukitzeko". Lagundu Eibar ekimeneko billerekin jarraituta, hillaren 20xan Sautxin egongo dira, 18.30xetan (eurixa bada, 22xan). Bestalde, astelehenian 19.00etan, 1983-1987 urtien bittartian Eibarko alkatea izan zan Jesus Mari Agirrek hitzaldixa emongo dau Batzokixan, sasoi hartako esperientziak berba egittek.



Europar barrena Lagun Taldearekin



Lagun Taldea, adimen urritasuna dakenen alkartekuak, urteroko martxiari jarraituta, musika eta dantza ikuskizun barrixa preparau dabe: "Desmadre Tours LT". Bixar izango da estreinaldixa, 17.30xetan Hezkuntza Esparruko antzokixan eta sarreriak euro bi balixo dau. Arrakasta haundixa eukitzen daben ekitaldixa danez, azken urtiotan bigarren emanaldi bat eskintzen dabe gaztiak eta aurten be hala egingo dabe, hurrengo asteburuko zapatuan (hillaren 24an), toki eta ordu berian. Ikuskizunian erakutsiko dittuen dantza eta kantuekin, oinguan Europar barrena bidaia aldrebes batian parte hartzera gonbidauko dittue ikusliak.

Mogel Isasiko otarra

Gabonetan Mogel Isasi ikastetxeak zozketatu eban otarra Beitia famelixiak jaso eban, Maier Fernandez ikasliak saldutako 2.378 zenbakixa zekan txartelari esker. Zorionak eta on egin!



GURASOAK MARTXAN

Datorren eguaztenian ekingo detse Gurasoak Martxan programiaren bederatzigarren ediziñuari, Haur Hezkuntzako umien gurasoendako La Salle Isasin emongo daben hitzaldixarekin (18.30xetan). Eguenian, barriz, "Autoritatea eta disziplina" izenburukua emongo dabe J.A. Mogel ikastolan.

eta kitto!
Euskara Elkarte
Urkizu pasealekua 11, solairuartera
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.eus
www.etakitto.eus

OTSAILA

					1		
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28		

MARTXOA

					1		
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

APIRILA

			1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30				

URTARRILA

			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30	31		



bazkide izan nahi dut



2015eko urtarrila-apirila

kultur eskaintza

...eta kitto! Euskara Elkarte



San Andres eskoliaren Aste Gastronomikua

San Andres eskolakuak 50. urteurrena ospatzeko preparau dituenen artian, Aste Gastronomikua antolatu dabe datorren asterako. Astelehenian hasi eta eguenera arte egunero sukaldaritzatzaillarra egingo dabe Portaleko sukaldian, 18.00etatik 19.30xetara, eta egun bakoxtian gonbidatu batek eukiko dau taillarra gidatzeko arduria: astelehenian Aurora Cid (Nutriebar) egongo da, martitzenian Juan Luengo (Iruki sagardotegixa), eguaztenian Enrique Vicente (Portalea jatetxia) eta eguenian Mireia Alonso (Krabelin eta Tekniker jatetxia). Taillarrarian gurasuak eta seme-alabak alkarrekin parte hartuko dabe.

Igone Lamarain, EH Bilduko zerrendaburu

Eguaztenian Portalean egindako batzarrian, Eibarko EH Bilduk Igone Lamarain Cobo koaliziñuaren zerrendaburu izateko aukeratu eben aho batez batzarrera juandako 78 lagunak. Aurtengo apirillaz geroztik ziñegotzi kargua bezten dau Lamarainek, Gorka Novoarekin (EA) batera zinegotzi izatiari uko egin eben Soko Baskaran eta Begoña Vesgak lagatako tokixa beteta. Politikan hasi baiño lehen, euskalgitzaren arluan ibilbide luzia egin dau zerrendaburuak eta, bestiak beste, ...eta kitto! Euskara Elkarteko presidentia eta Euskal Herrian Euskaraz alkarteko bozeramaillia izan da. Zerrendaburuaren aurkezpen publikua, bestalde, gaur egingo dabe, 19.00etan Untzagan.



ONCE-ren Antzerki Bienalaren kupoia

Aurreko astian presentau eben udaletxian XV. ONCE-ren Antzerki Bienala eta, horren barruan, aktore itsuak osatzen daben A Coruñako Valacar taldekuak atzo "Somos tan imbeciles" antzezlan eskindu eben Coliseo antzokixan. Antzerki topaketiaren harira, bestalde, urtarrillaren 18ko (domekako) kupoia XV. Antzerki Bienalari eskinduko jakola aurteratu eben.

www.etakitto.eus

Aste batzuetatik hona [etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) da ...eta kitto! Euskara Elkarteko domeiñu nagusixa. Gure helbide elektronikuak be `eus` izatera pasatu dira: erredakzioa@etakitto.eus, komunikabideak@etakitto.eus, publizitatea@etakitto.eus, normalizazioa@etakitto.eus, elkartea@etakitto.eus. Abenduaren 3an `eus` domeiñua eskatzeko fase libria martxan jarri zanetik, edozeiñek eska leike erregistratzaille orokorretan bere webgunerako `eus` domeiñu-izendapena.



URTARRILA

Urtarrilak 18, domeka:

Eibarko Arma Museora bisita, Gurasoak Berbetan-eko partaideentzat. 11.00etan.

Urtarrilak 27, martitzena:

"Gabon osteko gehiegikeriak arintzeko, zer?" hitzaldia. Itxesiko Jaione Yeregiren eskutik. 19.00etan ...eta kitto!-n.



Urtarrilak 30, barixakua:

Santa Agedarako ensaioa. 17.30-18.30, ...eta kitto!-n.

OTSAILA

Otsailak 3, martitzena:

Harixa Emoten literatur tertulia. "Apirila", Iñigo Aranberri. 19.00etan Portalean.

Otsailak 4, eguaztena:

Gurasoak Berbetan **Santa Ageda kalejira**. 19.00etan Ibarakurutzetik irten eta Urkizuraino. ...eta kitto!-n piskolabisa.

Otsailak 13, barixakua:

Aratosteetako pregoia, 21.00etan Untzagan.

Otsailak 15, domeka:

Play-back lehiaketa, 17.00etan Untzagan.



Otsailak 24, martitzena:

Ezti-dastaketa, Aitor Zabalaren eskutik (Erle Mundua). 19.00etatik aurrera ...eta kitto!-n.

Otsailak 27, barixakua:

Gurasoak Berbetan-eko gurasoentzat **"Euskararekiko motibazioa eta jarrerak"**, 17.30etan ...eta kitto!-n.

MARTXOA

Martxoak 3, martitzena:

Harixa Emoten literatur tertulia. **"Fikzioaren izterrak"**, Ur Apalategi. 19.00etan Portalean.

Martxoak 6, barixakua:

Ipuin-kontakteta musikatua Gurasoak Berbetan-eko guraso eta umeentzat. 17.30etan ...eta kitto!-n.

Martxoak 10, martitzena:

Korrika Kulturala: **"Erdaldunberrien klubua"** saioa, 19.00etan Portalean.

Martxoak 15, domeka:

Gurasoak Berbetan-ekoentzat **magia-ikuskizuna**. 11.30etan, ...eta kitto!-n.

Martxoak 23, astelehena:

Korrika Eibartik pasatuko da, arratsaldean.

APIRILA

Apirilak 7, martitzena:

Harixa Emoten literatur tertulia. "Erraiak", Danele Sarriugarte. 19.00etan Portalean.

Apirilak 24, barixakua:

Gurasoak Berbetan, **eskulan-tailerra**. 17.30etan ...eta kitto!-n.

Apirilak 25, zapatua:

Berbetan-eko **berbalagunentzat irteera**, Gernikako Bake Museora.

Apirilak 28, martitzena:

Euskararen Transmisioaren Mintegia. Portalean.



Hiru etxebizitzaren enkantia galarazita

Aurreko barixakuan, Kaleratzeak Stop Debabarrena plataformakua deittuta, alkarretaratzia egin zan Eibarko epaitegixaren parian, gure herriko hiru etxe enkantera eteratzia galarazteko asmuarekin eta helburua bete eben, Barclays-ek enkantia bertan behera lagatzia erabagi eban eta. Igeltseritza enpresa txiki bat salbatzeko asmuarekin hiru famelixak maillegu guztiak batu eta euren etxiak abal moduan erabilli



zittuen, baiña bankuari ordaintzeko arazua eukitzian bankuak etxiak enkantera eteratzia erabagi eben. Kaltetuak beste prozesu judizial bat zabalik zekela eta, azken momenturaino itxoi-ten egon ziran plataformako kidieri mobilizazi-ñuetarako baimena emoteko. Aurreko asteko egun arratsaldian horretarako baimena emon eta, horren barri izatian, bankuak enkantia bertan behera lagako ebala aurreratu zetsen plataformako kidieri eta, horrekin batera, aurreko barixakurako hitzordua lotu eben, kalte-ueri ordaintzeko moduko kuotak zelan ezarri aztertu eta, holan, euren etxiak gal- tzia nola saihestu adosteko. Alkarretaratzian plataforma-ko kidiekin batera Miguel de los Toyos alkatia egon zan, "herritarren izenian kalte- ueri babesa emoten".



Eibartarra "El Conquis" saian

Aurreko asteburuan abiatu zan "El Conquistador del fin del mundo" lehiaketianen 11. ediziñua eta parte hartzen dabenen artian Marokon jai- xotako Abdellah Benslaiman, "Tasio" gatxizenarekin ezagu- tzen dabən 43 urteko eibar- tarra dago. Beste 29 lehiaki- diekin batera, datozen astio- tan proba gogorreri egin biharko detse aurrera Julian Iantzik aurkezten dabən pro- graman aurrera egin ahal iza- teko. Gorabehera guztiak se- gidu nahi dittuanak horreta- rako aukeria eukiko dau, do- meka eta astelehen gabetan, 22.30xetan telebisiñuan ETB- 2 kanala ixotuta.

Eguaztenian askatu eben Ainhoa Baglietto

Asteleheneko polizia operaziñuan egin- dako atxiloketen kontrako alkarretara- tzia egin zan astelehenian Untzagan. Izan be, Guardia Zibillak atxilotu zittue- nen artian Ainhoa Baglietto abokatua eguan. Baglietto, beste bost abokature- kin batera, eguaztenian berreskuratu eban askatasuna, famelixakuen eta la- gunen txalo eta besarkada artian.





Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia: Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

Eibarko.ehildu
www.eibar.ehildu.eus



Eibar huntzen hari gara

Urtarrilak 16, ostirala
19:00etan Untzaga plazan
ehilduren ekitaldia
EIBARKO
ZERRENDABURUAREN
AURKEZPENA





Eibarko XX. KIROL SARIAK

2014-XII-31

Urtero lez, Gabon Zahar egunean Eibarko Kirol Sarien banaketa egin zen Coliseoan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urte guztian zehar gure herriko kirol taldeak egiten duten lan nekaezina saritzeko. 26 izan ziren saria jaso zuten kirolariak, bakoitzak modalitate bat ordezkatuz eta, horiez gain, Euskera eta Sustapen sariak ere eman ziren, Kirol Ibilbidea errekonozitzen duen sari sortu berriarekin batera. Sari Berezia, bestalde, Jon Errastirentzat izan zen, bere ordez Miren eta Fernando gurasoek jaso bazuten ere. Eskerrik asko bertaratutako guztiei eskainitako berotasunarengatik eta baita urte guztian kirolaren alde gure herrian diharduten klub eta elkarte guztiei ere.



Euskera Saria
URBAT WATERPOLO TALDEA



Sari Berezia
JON ERRASTI



Kirol Ibilbidea
JOSE MARI ARRAZOLA



Areto-Foballa
JOSU RUIZ



Arku Tiraketa
DANIEL GILGEGI



Atletismoa
AITZIBER URKIOLA



Automobilismoa
JAGOBA MARTINEZ



Errugbia
IRAITZ BEITIA



Eskia
JOSEFINA PRIETO



Eskubaloia
M. GOJENOLA / I. MARTINEZ



Foballa
ANGEL FDEZ. ZAPICO



Gimnasia Erritmikoa
ELENE VARELA



Golfa
MANU FERNANDEZ



Herri Kirolak
JAIME BAGLIETTO



Hiru Txirlo
MIREN DIEZ



Igeriketa
NORA VARELA



Judoa
JULIO GALLEGO



Karatea
JUAN JOSE AMADOR



Mendia
IRIONDO/TREBIÑO/ETXEBERRIA



Pilota
MARKEL LARRAURI



Saskibaloia
GERGORI PRIETO



Silbestrismoa
PATXI LUKE



Squash
FERNANDO VALENCIANO



Tiro olimpikoa
IKER JAUREGIBARRIA



Triatloia
KARLOS PEREZ DE OBANOS



Txirrindularitza
IKER GOIKOETXEA



Waterpoloia
INFANTIL MAILAKO TALDEA



Wu-Shu
ASIER CUESTA



Xakea
DAVID PEREZ



Sustapena
OBERENA HARATEGIA

Hurrengo Treparriscos-en ere izena emanda

Jose Mari Arrazola "Maltza" proba gogor hori amaitu duen beteranoena izan da azken hiru urtetan


JOSE MARI ARRAZOLAK IBILBIDE LUZEA EGIN DU BIZIKLETA GAINEAN. Baina ez profesional moduan, baizik eta zaletu gisa. Eta, 77 urterekin, izena emanda du urte honetan jokatu den Treparriscos lasterketa entzutetsuan. "Azken hiru urteetan horko beteranoenaren saria eman didate" dio Maltzak. Ezizen horrek bere gazte sasoiara garrantza, familiarekin Maltzagako tren geltokiko kantinaren ardura hartu zuten urteetara: "Aita ferrobriarioa zen eta Maltzagak bizitza handia izan zuten urteak ezagutu genituen". Ondo gogoratzen du Jose Mari Arrazola Maltzak bere lehen bizikleta: "Riañok, amaren lehengusuak, erositakoa zen". Bergaran jaioa, ume zela etorri zen gurera eta ondo ohitu zen gurgipilen mundura: "Orduan ez zen besterik: edo oinez, edo bizikletan".



Arrazola eta Doroteo Urkia 1954an.

Lasterketetan, bestalde, 17 urterekin hasi zen parte hartzen: "Txoko, Mendibe, Bastida... zebiltzan orduan. Ni Demetrio Friasekin hasi nintzen, Peña Bahamontes-en taldearekin". 19 urterekin irabazi zuen Club Deportivo Eibarresek antolatutako lasterketa bat eta bigarrena ere izan zen Elgoibarko Etxaniz Memorialean: "Esprintean irabazi zidan Miguel Angel Hazasek; hobea nintzen ni arlo horretan, beti irabazten nion, baina ondo aprobetxatu zuen ni beste bat zaintzen nengoela". Fausto Cerros bere koinatuak - "Pedro" familiakoendako- serioago jardun zuen lasterketa munduan: "Espainiako txapela jantzi zuen afizionatuetan fondoko lasterketan eta azpitxapelduna izan zen mendikoan. Isasin amaitu zen txapelketan ondo aprobetxatu zuen Maltzagako tunelean ihes egiteko". Gero soldadutza egiteko ordua heldu zitzaion Maltzari eta, "hemendik ez dut jango" pentsatzearekin batera, "Cerros, Demetrio Frias, Fernando Barrutia harakina, Pampo, Rioja ospetsua, Karlos Jose Mariren anaia... guztiei agur esan" eta txirrindularitza laga zuen. Markinako Iruzubietara ezkondu zen Jose Mari, berarekin ibili zirenak lagata, eta handik urte askotara hartuko zuen berriro bizikleta.

Adinean aurrera, sei Quebrantahuesos eginda ditu. Gogoratzen du, gainera, normalean 207 kilometro dituen lasterketa gogorren "232 osatu behar izan genuenean, lur-jauzia izan zela-eta". Azken urteotan Treparriscos, Quebrantahuesos-en anaia txikiarekin konformatzen da: "Ehun bat kilometroko lasterketa gogorra da eta askoren aurretik sartzen naiz oraindik ere". Horretarako, eta sa-



soiari eusteko, astero hiru bider irtetzen da errepidera: "60-70 kilometro egiten ditut; bestela, ia zaindu ere ez naiz egiten". Bakarrik baino lagunekin gustatzen zaio irtetzea: hor izaten dira "Tomas Arizaga, Azpitarte, Belda, Aristi, Debako Jose Angel, Jose Angel nire semea ere bai batzuetan... bada kuadrilatxoa".

Doroteo Urkia "Dorotti" ere lagun izan du askotan eta Madrileraino ere joan zen berarekin. Badu kontatzeko anekdotarik berarekin: "Zumarragara joatekoak ginen Santa Luzia egun batean eta, autobusak ihes egin, eta hemen geratu behar izan ginen. Astelena frontoira joan ginen, sasoi hartako dantzaldi batera, eta han aurkitu nuen emaztea. Pentsa, urrezko ezteiak bete genituen iaz!". Txirrindularitza atsegin du oraindik ere, "dopinga guztiz desagertzea zaila izango bada ere".

Patxi Gabika lagun zuen: "Bera izango zen, gainera, gehien gustatu zaidan txirrindularia. Jesus Aranzabal bergararra ere gertukoa izan dut. Izan dira beste batzuk: Errandonea, Otano...". Treparriscos-en beste sari bat izango du zain bere buruari apenas meriturik onartzen dizkion eta sasoiari hain ondo eusten dion eta askorentzat eredu den Maltzak.



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

Eguneroko ahaleginaren fruitua jasotzen

Duatloi denboraldiari heltzeko prest, Aitziber Urkiola atleta bere sasoi onenean aurkitzen da ama izan eta gero

HAMABI URTEREKIN HASI ZEN "BETIDANIK GUSTOKO" IZAN DUEN ARIKENETAN. Gero eskubaloiarekin uztartu zuen kirol modalitate hori, "azken horretan kokoteraino egin arte, atletismora bueltatzeko". Garrantzi handia izan zuen hor Gasteizera bizitzera joan eta Ane Ziaranekin topo egiteak. Bere izeko Inma Urkiolak ere asko lagundu dio bide horretan, ordainezinezko lanarekin herriko beste hainbat atletekin egin duen lez. Aitziber ia egunero irtetzen da korrika egitera, "batez ere, behin negua pasatuta, duatloi eta triatloi denboraldia hasten denean. Bestela, Unbera ere joaten naiz, astean bi-hiru aldiz; eta baita txakurrarekin, mendira".

Tarte hori goiz-goizean edo eguerdian aurkitzen du, etxeko beste zereginekin tarteka-



Urkiola alabarekin Simon Aldazabal probako helmugan.

tzeko: "Zorrotz jokatu behar duzu entrenamenduak ondo enkajatzeko". Taldean entrenatzea egokiagoa ikusten du, beti erraza ez bada ere: "Asteburuetan talde handiagoa osatzen dugu; astebarruan nire mailan diharduen beste batekin ibiltzen naiz askotan". Eibarko Triatloi Taldea laga berri du denboraldi berrirako eta Iruñeko Saltokirekin jardungo du, "Ane Ziaran eta Pello Osororekin batera". Sasoi honetan krosetan dihardu parte hartzen: "Hilabetero bat egiteko aukera eskaintzen dizu eta prestaketa ona da denboraldi osorako, indarra hartzen joateko". Erregeetako Krosean seigarren postuan amaitu zuen eta 15.a izan zen Donostiakoan, Lasarten; eta zalantzak ditu hilaren azken asteburuan Elgoibarko Mugertza Memorialean izango den ala ez. "Bai egongo naizela otsailean jokatuko den Euskadiko txapelketan".

Zein distantzian moldatzen den hobekien galdetuta, "5 eta 10 kilometro artekoetan" dio. Baita "15 kilometro inguruko mendikoeetan: Galdaramiño eta Zumaia Flysch Trail modukoak". Zumaiaiko azken horretan asko gozatu zuen: "Proba azkarra da, amildegiak, paisaia dotorea...". Orokorrean, beraz, distantzia motzen aldekoa dugu Urkiola. Bere "fuertea" aldapa beherak direla uste du. Ama izateak, dena dela, ez du goranzko al-

dapa bihurtuko zure jarduna? "Tetris-ak egitea egokitzen zait, baina ondo moldatzen naiz. Ezin naiz ezer egin barik egon, telebisita aurrean eserita. Lo gutxiago eta merienda gehiago: bide horretatik jotzen dut. Sakrifikatze prest nagoen arren, laguntasuna ere badaukat etxean, Jonan ere kirolaria da-eta. Badakizu: denbora gutxiago, gogo gehiago". Orain, gainera, inoiz baino indartsuago ikusten du bere burua: "Irakurrita dut ama izan ondoren globulu gorrien kopurua handitu egiten dela".

Atletismoa generoen arteko berdintasunerantz doala uste du: "Sarietan-eta ez da alderik: diru-kopurua eta tratua berdina izaten da. Azken podiuma mutilena izaten da, baina ulertu behar da aurretik sartzen direla. Gainera, azken aldia asko egin du gora nesken parte-hartzeak". Ane Ziaranek engantxatu zuen triatloira: "Sorosle titulua atera nuen, igeriketa badut ere puntu ahulena. Bizikletan ondo moldatzen naiz". Eta iaz Barakaldon eskuratutako podiumak bete du gehien orain arte, "Ainhoa Murua olinpikoarekin eta Nuria Rodriguez iruñarrarekin konpartitu nuelako". Eibarko lasterketetan parte hartzeak ere motibatzen du Aitziber: Asier Cuevas herri-krosa eta Simon Aldazabal memoriale horren lekuko.

MILA ARRIETA ZUBIMENDI

(I. urteurrena: 2014-I-15)

**"URAK DAKARRENA URAK DAROA
ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA"**

**Haren aldeko MEZA ospatuko da hilaren 17an,
zapatuan, 19.00etan hasita, San Andres parrokian.**



Herriko taldearekin izarren artean

Eibarko Kirol Sarietako sari berezia jaso zuen azken edizioan, herriko kirol klubek horrela proposatuta. Maila oso profesionalean dihardu eta ezin izan zen ekitaldian egon, entrenatzaileak halakoetara joateko baimenik ematen ez duelako. Eskerrak handik hiru egunera Eibarrek Espanyol-i irabazi ziola haren etxean, gure protagonista kapitaina zela. Jon, barkamena eskatzeaz gain, esker-oneko agertzen zaigu.

- Zelan doa denboraldia?

Orokorrean, ondo zentzu guztietan: taldea bikain dabil, zaletuak pozik, pertsonalki gustorara... Nondik gatozen ikusita, gure lehen helburua betetzeko bidean aurkitzen gara. Sari modura hartu dugu 1. mailan jokatzeara eta, beti ere hankak lurrean, horri eutsi behar diogu.

- Zeintzuk dira zuen itzaropenak?

Urtarrilean gaude eta zaila da une honetako ekaineko partiduei begira egotea. Guk geureari heldu behar diogu eta partiduz partidu joan behar dugu, jakinda guretako partidu guztiak finalak direla.

- Ezustekoa izan da zuentzat une honetan 26 punturekin egotea?

Egia esan, zaila zen hori imaginatzea denboraldi hasieran. Maila ezezaguna zen denontzat eta kalitatean eta erritimoan ondo nabaritu dugu aldea, partidu zailagoi egin behar izan diogu aurre-eta. Zelako intentsitatearekin jokatu dugun ikusita, ordea, espero ez dakit... baina merezi dugun tokian gaudela esango nuke.

- Konfiantzaz beterik zaudete...

Hori da-eta taldeak erakutsi duena ia partidu guztietan: Real Madrilen kontrakoa kenduta, beti eman dugu aupegia. Ondo lehiatzeaz gain, emaitzak ere alde izan ditugu gainera. Zure buruan konfiantza izateak, dena dela, ez du esan nahi aurkariei errespeturik galdu diegunik.



- Jauzi handia nabaritu duzu maila berrian?

Jakina. 2. B-tik 2. A-ra emandakoa baino handiagoa. 1. mailan, baloia ez duzunean batez ere... ez nuke beldurrik aipatuko, baina bai duzula bestelako sentsazioerik, eurek baloiarekin zer egingo duten zain... Hori bai, beti ere aurpegira begiratuta.

- Nortzuk gustatu zaizkizu gehien?

Izenak ematen hasita, Kroos eta Xabi Hernandez. Alemaniarrak partidu guztian ez zuen pase txarrik eman; eta Xabik... bikain jardun zuen gure aurka: baloia eskatzen, hona eta hara mugitzen, jokoa antolatzeneko zelako ahalmena!

- Aurkariei kamiseta eskatze zalea zara?

Ez dut gustoko, ez pentsa! Aurten, esaterako, lau jokalariekin aldatu dut: Godin (Atletico Madrid), Balenziaga (Athletic), Bueno (Rayo Vallecano) eta Alex Lopez (Celta). Godin kenduta, besteekin eurekin koinziditu dudalako Espainiako selekzioan. San Mamesen erabili nuena, esaterako, oparitu egin nuen. Hori bai, partidua galtzen badugu, ez dut kamisetarik aldatzeko inongo gogorik izaten.

- Ze aurkari izan da zailena?

Real Madril eta Bartzelona. Baita Villarreal ere; asko sufritu genuen eurekin Ipuruan, batez

ere azken minutuetan. Bestelako partiduetan, guk %100ean jardunez gero, erakutsi dugu guztagarela edozeini aurre egiteko.

- Kanpoko neurketetan erosoago moldatzen zarete?

Horiek partidu ezberdinak dira. Beste taldeak hartu behar du ekimena bere gain, eta horrek gu erosoago sentitzea ekar dezake. Defentsan azken aldian gero eta hobeto dihardugu. Eta erasoan, bestalde, golak erraz sartzen ditugu, kontraerasoan ondo gabilta eta, estrategian ere, bagabilta zeozer erakusten. Horri gaineratu behar diogu, dena dela, etxean ere azken partiduetan gehiago asmatu dugula.

- Entrenatzeko zailtasunak dituzue? Azken aldian entrenatzailea ere kexati nabaritu dugu...

Arlo horretan ere talde berezia gara. Egia da joan zen astean zelaia izoztu egin zitzaigula eta arazoak izan genituela. Era berean, errekonozitu behar dugu klubak ahalegina egiten duela: zelaia aldatzen dabil, grada berria eraikitzen. Bergaran entrenatzen genuen, orain Arrasateko Atxabalpen hobeto gaude...

- Zeintzuk dira zure bertuteak futbolerako?

Talde jokalaria naizela, ez besterik. Ez dut protagonismorik maite. Maila gorenean jokatu nahi izaten dut beti, taldean pentsatuz. Badira



labarria AUTOBUSAK

BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK

Besaide, 11. ELORRIO

Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / joxean@jolarbarria.com

azkarra direnak, pase bikaina dutenak, kalitate handikoak... Nik %100ean jarduten dut.

- Eta zertan zabilta makal? Non hobetu behar duzu?

Golaren aurrean: inguruko guztiak ditut gola noiz sartuko dudan zain, ospatzeko gogoz. Azken bi partiduetan gertuago egon naiz, baina badut hor zer hobetu. Eskerrak misterrak ez didala hainbeste eskatzen!

- Ze asmo dituzu Eibarrekin? Kanpoko eskaintzarik entzuteko prest?

Momentuz hemen ikusten dut nire burua. Beste urtebeterako kontratua dut, oso pozik nago eta zaletuen berotasuna nabaritzen dut. Klubaren koloreak barnean daramatzat eta zaila izango da herriko taldearena baina eskaintza hoberik jasotzea. Etorkizunean zer gerta daitekeen jakitea, dena dela, zaila da.

- Zelan definituko zenuke Realean egindako ibilbidea?

Oso emankorra izan zen: batez ere, futbole-tik aparte ere, pertsona moduan hazten lagundu zidatelako. 15 urterekin joan nintzen eta 24rekin bueltatu, zortzi urte eman nituen Donostian bizitzen.

- Realera lagatzea disgustoa izan zen zuretzat? Eibarrera etortzea atzerapausotzat hartu zenuen hasieran?

Ez, aurretik ere banekielako zaila izango zela Realera igotzea, konpetentzia asko zegoelako nire postuan. Banekien ezin nuela burua makurtu. Eta Eibarrekin fitxatzeak, gainera, ilusioa piztu zidan berriro.

- Dani Garziarekin bikote perfektua osatzen duzue erdialdean?

Partidu asko jokatu ditugu elkarrekin eta egia da berehala dakigula non kokatu behar garen bata bestearrekin tandem egokia osatzeko. Baina, nahiz eta mekanismo batzuk hartuta ditugun, ez da gu bion arteko kontua bakarrik, baizik eta beste taldekideekin ere osatzen duguna. Dani, futbolari ona izateaz gain, pertsona bikainagoa da.

- Taldearen bizkar-hezurra apurtu daitekeen beldurik datorren denboraldiari begira?

Arriskua argi dago hor dagoela: gauzak ondo egiten dihardugun seinale. Gaur egun 23-24 lagun gara aldagelan eta hor eragina izan de-

zake jokalaririk batzuen irteerak. Hala ere, Eibarrek beti -batez ere, azken aldian- asmatu egin du fitxaketetan... Espero dut gehienok jarraitzea! Albentosaarena gai delikatua da: oso harreman ona dut berarekin, ulertzen dut beste aukerak kontuan izatea eta, batez ere, zortetik onena opa diot.

- Zelako zaletuak ditu Eibarrek?

Ni hemen nagoenetik klubari lagundu diote beti: bai etxean eta, batipat, etxetik kanpo. Asko eskertzen dugu ahalegin hori gure etxetik kanpoko partiduetan. Zalego berezia dugu, taldea ulertzen duena, kalean topo egin eta zorientzen dizuna... Gakoa dira gure jardunean.



- Erraza da Eibarren jokatzeko eibartarra izanda?

Gauzak ondo irrtetzen zaizkizunean bikain doa dena. Eta espero dut, une txarretan ere, zaletuek ulertzea ahalegin guztia egiten dugula. Esperientzia polita da, baina ezin dut ukatu presioa nabaritzen dudala, erantzukizun moduko bat... Dena dela, asko dut eskertzeko: detaile txiki asko ditut gogoan.

- Anaia ere lagun duzu klubean, atzetik..

21 urte ditu, atezaina da eta Lagun Onak-en dago orain, lagata. Pare bat alditan ere entrenatu du gurekin. Eta berarekin gozatzeko aukera ere izan dut: bai 2. A mailarako igoera, eta baita Athletic-en kontrako partidua.

- Gustoko jokalaririk baduzu? Zure postuan jokatzen du?

Xabi Alonso. Txikitatik, Eibarren jokatu zuenetik. Bere ibilbidea ikusita -Realean, Liverpoolen, Real Madrilen eta orain Bayern-en- eredutzat dut.

- Zein izan da gehien eman dizun entrenatzailea?

Bi besterik ez ditut izan: Imanol Idiakenez Sancen eta Gaizka Garitano. Azken honek asko zabaldu dit ikuspegia eta berarekin aurreratu dut gehien: zelaian dudak kokapena... urrats asko zor dizkiot.

- Nongo futbola duzu gustokoen? Zergatik?

Ez nuke liga bat edo beste nabarmenduko. Futbola gustatzen zait; ez da besterik. Ingalaterrakoa aipatzen dute askok, baina neri hemengoak ere gustatzen zait. Futbola bizi dut eta etxean ere ikusten ditut bideoak, luzaketak egiten ditut... Baina, lasai, deskonektatzen ere badakit, ez naiz hain jasanezina.

- Ordezkoa izatea ondo jasaten duzu?

Ba ez dut larregi sufritzen. Zelaira irtezeko gogoia izan arren, batez ere taldeari onena opa diodalako. Taldea ondo badoa, zu ere ondo sentituko zara.

- Non dago Eibar FT-aren benetako indarra?

Bi arlo desberdinduko nituzke hor. Klubari dagokionez, duen lan egiteko era: defizit zeroari eustea eta halakoak... zorrak-eta baztertzeko modurik osasuntsuena. Taldeari erreparatuz, bestalde, aldageletako giroa, hain berezia eta kanpoko jendea integratzeko guztiz mesedegarria dena. Eibar FT-ko kamiseta janzten duenak %100 ematen du.

- Amaitzeko, zelan hartu duzu Eibarko Kirol Sarietako sari berezia?

Pena eman zidan ekitaldian ez egoteak eibartar moduan ohore handia delako horrelako sari bat jasotzea. Ilusio berezia egin zidan, gainera, jakinda orain dela urte bi ere futboleko saria jaso nuela. Pertsonalki, egindako ibilbidearen errekonozimendutzat hartu dut eta, horregatik, niri jasotzea egokitu bazait ere, sari hau taldekoena, etxekoena, neskarena, lagunena eta eibartar guztiena da. Nire atzean egon diren eta dauden guztiena; horregatik, partekatutako nahi dut guztiekin.

M^a ISABEL LIZEAGA EZAMA

(AUZOLAGUN-EKO LANGILEA)



“Nahiz eta gure artetik joan beti gogoan izango zaitugu”

Zure lankideak



Emakumezkoen Euskal Liga



Urko



Ohorezko Jubenila



Emakumezkoen Lurrealdekoa



Euskal Liqako Kadetea



1. MAILA

Goian: Manu del Moral, Dejan Lekic, Derek Boateng, Jaime Jiménez, Xabier Irureta
Erdian: German Andueza (delegatua), Federico Piovaccari, Saul Berjón, Raul Alberola, Alex Aranzabal (presidentea), Gaizka Garitano (entrenatzailea), Dani García
Behean: Manu Sánchez (fisioterapeuta), Mikel Calvo (birregokitzaila), Ostaiska Egiztegui, Ander Capa, Manuel Castellano "Lillo", Alain Gandiaga (prestatzaile fisiko)



SDEIBAR



SDEIBAR 1940-2015

IPURUA
 KIROL
fundazioa



Ohorezko Kadetea



Emakumezkoen Ohorezko Kadetea



Ohorezko Infanila



Infanila Txikia



Alebina

LA

a, Jon Irazustabarrena, Raul Navas, Mikel Arruabarrena, Didac Vilá
 ntosa, Patxi Ferreira (bigarren entrenatzailea), Txema Añibarro,
 a, Eneko Bóveda, Jon Errasti eta Angel Fernández Zapico (utilleroa)
 ia (sendagilea), Dani Nieto, Borja Ekiza, Abraham Minero, Javi Lara, Angel Rodríguez,
 a), Iñaki Lafuente (atezainen prestatzailea) eta Unai Ormazabal (fisioterapeuta).

Urte Berri On guztioi!!!
EIBAR FOBALL TALDEKO familiaren partetik

Herriko bost jokalarik hartu zuten parte Kataluniaren aurka irabazitako partiduan. Hierros Anetxek, bestalde, etzi eguerdian partidu garrantzitsua du Unben, A Coruñaren aurka.



Jon, Mikel, Julen (kopa eskuan duela), Kepa eta Gaizka, Iñaki Laskurain Euskal Federazioko presidentearekin.

Eibarko boskotea euskal selekzioarekin

GABON HAUETAN EUSKAL SELEKZIOAREN ERREBINDIKAZIOAREN BESTE ADIERAZLEETAKO BAT IZAN ZEN Bartzelonan Euskadiko eta Kataluniako selekzioen artean jokaturako partidua. Gure herriko ordezkari zabalda izan zen partidu horretan, Pello Urkidi prestatzailearen agindura: Gaizka eta Jon Arrizabalaga anaiak, Julen eta Kepa Zamakola anaiak eta Mikel Meabebasterretxea. Bost jokalarik garrantzitsu azken garaipenean, Mikelek entsegu bi lortu zituelako eta Gaizkak makiletarako beste bihurtuta bi. *"Eibartik ez gara inoiz hainbeste egon Euskadiko selekzioarekin"*, diote. Dena dela, aurretik ere joandakoak dira: *"Bost-sei bider batzuk, hamar besteak..."*. Gaur egun Ordizian jokatzeko diharduen Kepa Zamakola jubeniletan ere izan zen.

Partiduen bezperan heldu ziren Bartzelonara eta entrenamendu bakarra egin zuten: *"Hamabost lagunekin. Gero gehiago izan ginen partidurako"*. Iaz History Cup torneoan parte hartu zutenentzako sari modukoa izan da Kataluniaren aurkako partidua. Atsedendaldira markagailua alde zutela (10-14) joan ziren aldageletara euskaldunak, gero kataluniarrek irauli egin zuten neurketa, baina amaieran Euskal Selektzioak aurrean ziren berriro (33-38): *"Puntu gutxiago lortuko genituela uste genuen, defentsak gogo-*

rragoak izango zirela". Anai bikote bi han izateak deigarria izan badaiteke ere, *"beste bi anai ere izan ziren, Getxokoak. Familia giroko kirola den seinale"*.

Hierros Anetxe Eibarko taldea aurreko urteetan baino makalago dabil aurten: *"Jokalaritza titularrak zirenak joan zaizkigu eta badira erretiratu direnak ere. Oso jende gaztea sartu da taldean eta horri gehitu behar zaio asko kanpoan ikasten dihardutela eta entrenatzeko larriago ibiltzen gara"*. Hala ere, boskotea itxaropentsu dago denboraldiaren amaierari begira: *"Bigarren itzulian jokaturako partidu biak irabazi ditugu eta domekan ere asmo bera dugu Unben 12.00etan hartuko dugun A Coruñaren aurrean"*. Eibartarekin azken urteotan lehiatu duten Durango eta Zarautz gorago daude denboraldi honetan: *"Durangarrek beteranoak berreskuratu dituzte eta Zarautzek jendea fitxatu du. Dena dela, parekotasun handia dago multzoan eta edozeinek irabazi diezaioke edozeini"*, dioskue bostak ados.

Mailari eustearrekin konformatzen direla gehitu digute: *"Gure aurrekontuarekin ezin dugu maila igo... babesle indartsurik lortu ez ezean behintzat"*. Eibar Rugby Taldeak Oherrezko B mailan jokatzeko du. Liga amaieran, uda partean, izango dute aukera berriro selekzioarekin jokatzeko: *"Lehen autonomien*

arteko txapelketan lehiatzen genuen; iaz Andorra, Galizia eta Kataluniarekin hartu genuen parte beste torneo batean". Zaletuengatik galdetuta, *"betikoak"* ezpaineratzen zaie: *"Familiakoak, lagunak, lehen jokatzeko zutenak... igoera partiduetan kenduta: hor askoz ere giro handiagoa dago. Negua edo uda izan, horrek ere badu eragina"*.

Nesken senior taldeak indarra hartu du azken aldian, baina hala ere *"jende falta"* nabaritzen dute: *"15 jokalarirekin jokatzeko eta horrek beharrezko egiten du deialdian 22-23 lagun izatea"*. Partidu ondorengo hiru garraren zatiak izen ona eman dio betidanik errugbiari eta Eibarko boskoteak ere *"taldeko giro hori"* nabarmentzen du. Kontaktuzko jokoa izanda, ez da hainbeste lesiorik izaten: *"Horretarako entrenatzen dugu. Kolpeak jasotzen ditugu, normala denez, baina lesio gutxi izaten dugu"*. Arlo horretan Ordiziako Gorka Nuñez prestatzaile fisikoaren lana goraiatu dute.

Diotenez, Zeelanda Berrikoa da munduko selekzioarik onena; liga indartsuenak, bestalde, Frantziakoa eta Ingalaterrakoa. Zaletasunak euren onena ematea dakar eta, horrela, bihurtik bertatik hasiko da Gaizka Arrizabalaga 12 urtetik beherakoekin lanean, Multikirolaren barruan: *"Iñaki Laskurain Euskal Federazioaren presidenteari lagunduko diot neska-mutikoekin"*.

J.A. LASKURAIN

ASEGURU ARTEKARIA S.L. D.G.S. 1.408 - J

BIDAIA ASEGURUAK

R.A.C.V.N-ren
ordezkaritza

Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13
943 12 05 30 / Faxa. 943 70 28 87

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

GASOLEOEN BANAKETA

20.000 L.

2.000 L.

Otaola etorbidea, 13 - Bis

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

Aitor Hernandez Espainiako txapelduna ziklo-krosean

Azken probetan Ruiz de Larrinagarekin galdu eta gero, Specialized-Ermua taldeko txirrindulariak mendekua hartu zuen Xixonen eta Espainiako txapela jantzi zuen Los Pericones parkean amaitutako lasterketan. Ibilbidea oso labankorra zegoen eta horrek akatsak egiteko arriskua handitzen zuen. Hala ere, Hernandezek hasieratik ezarri zuen bere legea eta, itzuliak osatzen joan ahala, jarraitzen ziotenekiko alde handitzen joan zen, 2013an egin zuen modura Espainiako txapela janzteko berriro. Estatuan egindako denboraldi bikaina amaituta, orain atzerrira joango da Aitor Hernandez azken probak egitera.



Kopa Eibar Eskubaloiko bi jokalarirentzat

Kataluniari finalean 36-32 irabazita, eskubaloiko euskal selekzioak jubenil mailako autonomien arteko Espainiako txapelketa bereganatu du Castellón. Han izan dira Eibar Eskubaloiko ordezkar bi: argazkiko Mikel Zabala eta Jon Barruetaña

Mendiko eski eta izotz eskalada ikastaroak

Urtarrilaren 24/25ean egingo den mendiko eskiko eta hurrengo asteburuan izotz eskaladarako ikastaroetan izena emateko epea zabaldu da. Lehenengoan oinarriko teknikak erakutsiko dira, eski igoaldi eta zeharkaldiekin batera; eta, bigarrenean, kranpoi eta pioleten erabilera aurreratua landuko dute Bielsara joango direnek. Informazio gehiagorako: www.gmf-fgm.org

motzean

TXIRRINDULARITZA

Eibarko Txirrindulari Elkarteak oharra kaleratu du lizentzia zikloturistak tramitatzeari ekingo diola jakinarazteko. Hilabete honetan eta otsailen eguaztenero izango dira elkarteke bulegoetan (Pagaegi, 3) lizentziak egiten, arratsaldeko 19.00etatik 20.00etara. Diotenez, aurten aldaketa batzuk daude.

ATLETISMOA

Klub Deportiboko Atletismo batzordeko sei ordezkar izan ziren Lasarteko krosean parte hartzen. Julen Teranek 7. postuan amaitu zuen jubeniletan, Aitziber Urkiolak 15.ean emakumezkoetan eta senior mailan jardundako laurak honako postuetan sartu ziren: Peio Osoro (30), Jonan Rodriguez (42), Unai Narbaiza (52) eta Iñigo Unanue (59).

WATERPOLOA

Urbat-Urkotronik waterpolo taldekoek zozketatutako Sanandresetako otarraren irabazlea agertu ez denez, zozketa berrian 8.079 zorbakia urten da irabazle.

Centro de fisioterapia



Manu Sánchez



KIROL
FISIOTERAPIAN
ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)

Egoazia Gobernu Kanpoko Erakundea Perun garatzen dabilen proiektuan behar hiru hilabete eman zituen Ainhoa Mesa gazte deustarrak eta han bizi izandako esperientziarekin benetan pozik itzuli zen etxera. Bidaiaren asmo nagusia hango nekazariei laguntza eskaintzea izan arren, horrelakoetan sarritan gertatzen den moduan, bueltako maletan haranzkoan sartutakoak baino gauza gehiago ekarri ditu.

- Nola suertatu zitzaizun Peruraino, Egoaziaren proiektuan laguntzera joateko aukera?

Eusko Jaurlaritzak kooperante gazteentzat urtero ematen dituen beka horietako bat eskuratu nuen eta, horrelakoetan, norberak ez du aukeratzen nora joan edo zein proiektutan lagundu nahi duen, Jaurlaritzak berak esaten dizu nora joango zaren laguntzera eta niri Eibarko Egoazia Gobernu Kanpoko Erakundearen proiektuan laguntzera joatea egokitu zitzaidan.

- Nolako da proiektu hori? Zertan ibili zinen beharrean?

Egoaziak urteak daramatza Perun, Piurako nekazariei laguntzeko proiektuan beharrean. Zehatzago azaltzeko edo, hango kakao ekoizle txikien elkartearen kompetibitatea indartzeko proiektua da eta, nik Enpresa Zientziak ikasi ditudanez, elkartearen bulegoan beharrean jardun nuen, gaitzeak egiten eta bulegoko beste lan batzuetan laguntzen. Baina hortik kanpora ere, San Juan de Bigoteko nekazariekin batera zelaietan beharrean ibiltzeko aukera ere izan nuen eurekin eman nituen hiru hilabeteetan.

- Nolako esperientzia izan zen?

Oso oso ona. Horrelako esperientzien inguruan berba

egiten dugunean denok gauza berak behin eta berriz errepikatzen ditugu: zenbat eta gauza gutxiago izan orduan eta zoriontsuago dela jendea, bizimodu askoz lasaiagoa daukate, edozein oztopori aurre egiteko orduan gu baino positiboagoak direla... Horiek guztiak eta gehiago bizi izan nituen, hori da egia biribila. Zoragarri hartu ninduten eta benetan oso gustora egon nintzen.

- Azaldu duzunez, zure bideak eta Egoaziarenak bat egitea bekari zor zaio, baina behin hasita, aurrera begira elkarlanean jarraitzeko asmoa daukazu?

Egoaziak Perun egiten duen lana benetan garrantzitsua da. Hiru hilabete horietan nik ikusi zuena ikusita, Egoaziak lagundu ezean, seguruenik nekazari horiek aurrera egiteko modurik ez lukete izango. Handik bueltan Egoaziari pare bat ekitalditan laguntzen egon naiz, baina bestela Eibar urrutiko samar gertzen zait. Bestela, betidanik gustatu zait boluntario/kooperazio proiektuetan laguntzea eta hori ez da aldatuko. Perun baino lehen, orain dela urte batzuk Bolivian egon nintzen eta gaur egun ere, beharretik kanpora, IHES gaixoei laguntzen ibiltzen naiz.



Ainhoa Mesa
(KOOPERANTEA)

“Bekari esker joan nintzen Perura laguntzera”

*Labores de
Ainhoa*

*Gurutze-puntuan eta patchwork-en
espezializatua.*

Juan Gisasola, 6 690261090
PATCHILDOR-ekin elkartutako DENDA BERRIA

LAN ESKAINTZA

SUKALDE-LAGUNTZAILEA
*behar da Eibarko
ostalari establezimendu batean*

Bidali curriculum-a argazkiarekin:
40 postakutxatila 20.600 EIBAR



Datorren urtarrilaren 20rako, martitzenerako, hitzaldia antolatu du Eibarko Lomceri ez! hezkuntza taldeak. "LOMCE: ondorioak eta alternatibak" izenburuari jarraituta, Wert ministroaren hezkuntza erreformarako legeak gure ikastetxeetara ekarri eta ekarriko duenari buruz jardungo dute eta, azterketa horretan laguntzeko, Aitor Fernandez de Pinedo eta Ane Landeta Hezkuntza Plataformen Topaguneko kideak gonbidatu dituzte. Hitzaldia 18.30etan hasiko da, Portalean, eta umeendako haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute.

AITOR FERNANDEZ DE PINEDO, Hezkuntza Plataformen Topaguneko kidea:

"LOMCE-k hezkuntza sistema propioa eraikitzeko bidea itxi nahi du"

- Zeintzuk dira legearekin etorriko diren aldaketa nagusiak eta nolako eragina izango dute?

Euskaldunon ikusmiratik, gure nortasuna eta kultura Hezkuntza Sistema propio baten bidez gara dezagun oztopoa baino ez da LOMCE. Ez du gure errealitatea aintzat hartzen eta zentralizazioa eta doktrinamenduaz baliatzen da 40 urteko atzerakada bultzatzeko. Hezkuntza Sistema propioa eraiki dezagun bidea itxi egin nahi du eta hezkuntza komunitatea osatzen duten kolektibo guztiengan izango du eragina. Ikasleek ibilbide akademikoa oztopo-lasterketa bihurtuko du, hezkuntzako profesionalen lana errebalida ezberdinetan neurtuko diren emaitzak bermatzera mugatuz. Gurasoek ere gertutik jasango dituzte erreformaren ondorioak.

- Hasita dagoen ikasturte honetan aldaketarik eragin du?

Jakina. Baina ez da egun batetik besterako aldaketa bortitza izan. Prozedura zirimir moduan, apurka apurka ari da gauzatzen. Adibidez, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek pasatu beharreko lehen proba abiatuko du Jaurlaritzak ikasturte hau amaitu baino lehen. Esperientzia pilotu bezala aurkeztuko badute ere, aurrera begirako jarraibidea izango da. Hezkuntza lege berriaren oinarria izan behar zuen Heziberri 2020 prozedura, bestalde, LOMCEren garapera ko erreminta bihurtu du Hezkuntza Sailbu-

ruak. Curriculum propioaren garapena izan behar zuenak, Madrilgo ikusmira hartu du ardatz gisa.

- Badago legea ez aplikatzeko modurik?

Hezkuntza Plataformen Topagunean argi dugu ez dugula inongo inposaketarik onartuko. Nahiko hedatuta dagoen legearen kontrako jarrera hori, LOMCE ez aplikatzeko konpromiso kolektibo bihurtu nahi dugu.

- "LOMCEri aurre egin eta Euskal Herriaren gure hezkuntza eraikitzeko" izenburuko gidan zer planteatzen duzue?

Abenduan saio praktikoa burutu genuen

Durangon, "Gure gida" txosteneko hausnarketatik abiatuta indarrean dauden hainbat egoerentzat erantzunak eratzeko. LHko 3. mailako probaren aurrean bidera daitzkeen erantzun kolektiboak, edo etapa horretako irakasgaien antolaketa berriari erantzunez, ingurumenean adibidez, irakasleek ebaluatzeko eta gurasoek euren desadostasuna agertzeko erabili ditzaketen formulak aztertu genituen, besteak beste. Erantzun praktiko guztiak bilduko dituen gida aurkeztuko dugu laster.

- Gairekin kezka handia dago?

Halako erreforma sakon batek herritar guztien egunerokoan eragiten du eta, norberak bere burua LOMCEren zurrunbiloan ikustean, zerbait egiteko grina pizten da barrutik. Hezkuntza komunitateko eragile guztiak aurka azaldu dira. Horrek sekulako indar potentziala badu ere, Hezkuntza Sailak zabaldu duen lasaitasunerako mezuak eta gurasoei emandako informazio urriak, jendearen ezinegona epeldu du sarritan eta, hainbat hitzalditan, oinarriko informazioa ematean, begi-bistakoak dira jendearen sortzen diren harridura eta hase-rea. Guk hausnarketarako gonbitea luzatzen dugu hitzaldietan. LOMCE bezalako lege batek gure herriaren etorkizunari begira dakartzan eraso eta arriskuak mahai gainean jarrita, Hezkuntza sistema propioa eraikitzeko bidean indarrak batzeko gonbitea egiten dugu.



IDOIA SOMOZA (sopranoa)

“Opera eta antzerkia batuta, umeen arreta erakartzea lortu dugu”

Deabru Beltzak & Tin Pan Alley-ren eskutik, zapatuan 17.00etan "Opera abeslaria" ailegatuko zaigu Coliseora (5 euro). Umeendako bereziki sortutako ikuskizunean antzerkiak eta musikak modu bikainean egiten dute bat. Idoia Somoza Vegas sopranoak, Katrin Schlegel aktoreak eta Marta Galleguillos pianojoleak kontatu eta kantatuko duten istorioa August Strindberg-ek idatzitako "Tabako lehorte giko sekretuak" ipuinean oinarrituta dago.

- Zer kontatzen duzue "Opera abeslaria" lanean?

Ikuskizunak kontatzen duen istorioa August Strindberg-en ipuinean oinarritzen da eta Hannah izeneko opera abeslari ospetsu baten gorabeherak, arrakasta eta hondamendia azaltzen ditu. Abeslaria goreneko mailara ailegatzean, harrokeriaz bete eta inguruko guztiak baztertzen joaten da, inork berari trabarik ez egiteko. Hamaika gorabehera tartean, harrokeria hori bere buruaren kontra joango da eta, abesten zuen antzokitik kalera bota eta gero, tabako-lehorte gila izandako tokian etxe txiki bat alokatu eta hara joango da bizi izatera eta egindako guztiaren inguruko gogoeta egitera.

- Umeentzat pentsatuta dago, ezta?

Bai, bihar aurkeztuko duguna bereziki umeentzat sortutako lana da, asmo horri jarraituta bereziki moldatu dugu. Narra-tzailearen kontakizunak, operak eta antzerkiak, hiruak tartekatzen joaten gara eta, orain arte behintzat, umeek oso ondo hartu dute, asko gustatzen zaie. Gainera, taulatik jaitsi eta publikoarekin zuzeneko hartueman handia dago eta oso ondo pasatzen dute. Ikuskizuna bost urtetik gorako ume guztientzat gomendatuko nuke. Hau ikusi eta gustatuz gero, generoarekin zaltzen joatea gerta daiteke, batek daki.

- Publikoari opera modu arin eta dibertigarrian gerturatu nahi diozue. Oro har, opera arrotza egiten zaigula uste duzue?

Norberaren inguruaren arabera alde handia dagoela esango nuke. Oso txikitatik horrelako musikarekin ohituta dauden umeek opera ezaguna egiten zaie, baina beste askorentzat erabat arrotza da. Hala ere, lanerako musika aukeratzeko eta moldatzeko ardura nirea izan da eta oso ondo zaindu dut. Abestiak kontu handiz aukeratu ditut, zatirik esanguratsuenak hartu eta bereziki umeentzat erakargarriak izateko moldatuta daude. Taula gainetik umeen aurpegiei begiratzean asko gustatu zaie- la argi ikusten da eta luzaroan hala jarraitzea espero dugu.



Danborradaren kontzertua

Usartza Txistulari Bandak, urteroko ohiturari jarraituta, San Sebastian egunaren harira Danborradaren kontzertua antolatuko du. Domekan 12.30etan Coliseo antzokian hasiko den kontzertuan, txistulariei laguntzen danborrek eta barrilek osatutako Eibarko Danborradaren ordezkaritzak eta Molto Vivace metal boskoteak jardungo dute, Elena Perezek zuzenduta. Egitarauari jarraituta, hauek dira emanaldian eskainiko dituzten kantuak: "Donostiako Martxa", "Diana Txikia", "Diana", "Eibarko Herria", "Idiarena", "Urnietako Ereserkia", "Eibarko Martxa", "Danborren Polka", "Mutriku Herria", "Erretreta", "Pantxika", "Hau dek hau", "Katiuska", "Debako Martxa" eta "Tatiago".

Joseba Arginzonizen argazkiak ikusgai



Martxoaren 1era arte Joseba Arginzoniz Martin eibartarraren argazki erakusketa egongo da ikusgai El Corte Inglesean (merkataritza guneko ekitaldi aretoan). Argazkilaria munduan zehar egin dituen bidaietan hartutako irudiak ikusi nahi dituenak, dena zabalik dagoen egunetan 14.30etatik 21.00etara izango du horretarako aukera.



Eibar FT-ren 75 urteak ikusgai Portalean

Aurten 75 urte beteko dira Eibar kirol elkartearen sortu zela eta, urteurrenaren harira, urtean zehar hainbat ekitaldi berezi antolatzeke asmoa daukate. Horien arteko lehena egunotan Portalean ikus daitekeen erakusketa da. Otsailaren 1era arte martxan egongo den erakusketan foball taldearen historiari erreposoa emateko argazki eta bestelako material ugari pilatu dute eta, horiek guztiak ikusgai ipinita, klubak eskerrak eman nahi dizkie 75 urte hauetan Eibar maila gorenera heltzea posible egin duten guztiei. Erakusketa ordutegi berezian bisitatu daiteke: martitzenetik domekara 17.00etatik 20.30etara.

San Blas ikastaro eta lehiaketa

Arrate Kultur Elkarteak San Blas opilak egiten ikasteko kurtsoa eta opilen lehiaketa antolatu ditu. Ikastaroa otsailaren leian (domekan) egingo da, 10.00etan Portalean (sukaldean) eta izen-ematea doan da. Interesatuak Arrate Kultur Elkartean eman dezakete izena (astelehen eta eguenetan, 09.30etatik 11.30etara; eta martitzen eta eguaztenetan, 17.00etatik 19.00etara) edo, nahiago izanez gero, 943202299 telefono zenbakira deituta edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita. Etxean egindako San Blas opilen lehiaketa, berriz, otsailaren 3an (martitzena) izango da. Parte hartu nahi dutenek 17.00etatik 19.00etara Arrate Kultur Elkartean Topalekura eraman beharko dituzte opilak eta epaimahaia handik ordubetera esango du zein den irabazlea. Saria Euskal Herriko produktuekin osatutako otarra izango da.



Mandala erakusketa Untzagan

Untzagako jubilatutako etxeak Martin Unanue Añibarro eibartarraren "Mandala Artistikoak" erakusketa inauguratuko du datorren martitzenean, 19.30etan. Egileak berak azaldutakoaren arabera, "mandalak oso aintzinako arte modua dira, kaligrafia eta marrazkiak erabiliz. Oso modu ezberdinetan sortu daitezke, baina nik eskaintzen dudana modua 'hitz positiboen modua' da. Esker hitz asko idaztean, eta askotan, Lurra eta gu geu sendatzen lagundu dezakegu". Erakusketan ikusgai ipiniko dituen mandalen bitartez, "inguru positibo eta harmoniatsuan urak sortzen duen edertasunari omenaldia" egin nahi izan dio. Otsailaren 8ra arte martxan egongo den erakusketa 19.15etatik 21.15etara bisitatzeko aukera izango da astelehenetik barixakura bitartean eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara zabalduko dute.



Marrazki lehiaketa Galiziako Etxean

As Burgas Galiziako Etxeak antolatuta, aurreko asteburuan XX. Umeendako Gabonetako Marrazki Lehiaketa egin zuten elkarteak. Argazkian ikusten dituzuen artista gazteek euren marrazkiak amaituta, epaimahaioek irabazleak aukeratu zituzten: Hamar eta hamabi urte bitarteko mailan lehen saria Salma Losadak jaso zuen, bigarrena Alba Luquek eta hi-

rugarrena Ane Egiak. Eta sei eta bederatzire bitarteko mailan, berriz, Esther Losada, Jenny Seguin eta Unax Rodriguez saritu zituzten. Horrez gain, sei urtetik beherako mailan Martin Rodriguezek sari berezia jaso zuen. Galiziako Etxeek urtero antolatzen duten lehiaketako irabazleen marrazkiak hurrengo Gabonak zoriontzeko erabiltzen dituzte.



laburrak



JIMMY BARNATAN&BAND

Gaur 20.30etan Jimmy Barnatan&Band zuzenean entzuteko aukera izango da Coliseoan (8 euro). Hogeitahamabi urteko musikari ezagunak "Room 13-A blues tale", zinema eta musika uztartzen dituen estudioko bere hirugarren diskoa aurkeztuko du gaurko emanaldian.

EUSKALTEGIETAKO AUKERA

Eibarko Udal Euskaltegia eta AEK-n matrikulatzeko epea zabalik dago. Euskara ikasi nahi dutenentzat eskaintza zabala dago bai ikastaroetan baita ordutegietan ere eta ordaintzeko orduan hainbat dirulaguntza eskaintzen dituzte. Informazio gehiagorako deitu Udal Euskaltegira (943700912) edo AEK-ra (943201379).

Urte guzti hauetan zure jarrera miresgarria izan da. Lekzio handi bat eman diguzu guztioi. Beti egongo zara gure artean.

"Zure Kuadrila"



MIREIA ORMAETXEA LUIS (15/01/14)





Koko-marruen konpartsari laguntzeko aukera eskainiko dituzte entseguok. LEIRE ITURBE

Koko-dantzetarako entseguak

Aratosteak gerturutzen doaz eta, azken urteotako martxari jarraituta, aurten ere koko-dantzak eta koko-eskea antolatu dituzte Kezka dantza taldekoek. Aratoste "ofizialen" aurretik, otsailaren 7an irtengo dira koko-dantzariak eta, baserririk baserri ibili eta gero, arratsaldeko 19.00etatik aurrera herrian kalejira egingo dute, anbulatoriotik abiatuta. Antolatzailleek diotenez, "koko-marruen konpartsari laguntzeko Eibarko kaleak koko-marruz bete nahi ditugu, herria koko-jantzi alegia, eta festaz gozatu nahi duten guztiak gurekin bat egitera animatu nahi ditugu". Eurekin bat egin nahi dutenentzat entsegu irekiak antolatu dituzte, koko-dantza ikasi eta koko-jantziari buruzko laguntza eskaintzeko. Egun bitan egingo dituzte entseguak, urtarrilaren 27an eta otsailaren 3an (martitzena), 20.00etan Portalean (3. solairuko dantzagelari). Edozein zalantza izanez gero kezka@dantzan.com helbidera idatzi edo 943530440 telefono zenbakira deitu daiteke.

Zarzuclaren antologia zuzenean

Urtarrilaren 29an (eguna), 20.30etan Zarzuclaren Antologia hartuko du Coliseo Antzokiak. Ozenkik antolatutako ikuskizuna osatzeko zarzuela ezagunetako pasarterik adierazgarrienak hartu dituzte eta, taula gainean, Miren Urbieta Ibarra-ko sopranoarekin batera, Luis Alberto Giner Valladolideko tenoreak eta



Madrilgo Andres del Pino baritonoak jardungo dute. Horiei laguntzen, Donostiako Lirica Sasibil abesbatza eta Sotto Voce orkestra egongo dira eta, musikariez gain, Iker Casares, Koldo Torres eta Ana Miranda aktoreek ere

hartuko dute parte ikuskizunean, denak Josean Garciaren zuzendaritzapean. Sarrerak 25 euro balio du eta kutxabank.es helbidean zein Coliseoko txarteldegian alde zuzenetik erosteko aukera dago.

Euskal Jaiaren mende erdirako dantzak

Euskal Jaiak 50. urteurrena beteko du datorren maiatzaren 31n eta egun horretarako Eibarko dantzari guztiei plazara dantzara irteteko gonbidapena luzatu diete antolatzailleek. Ekitaldian parte hartu nahi duenak izena eman eta horretarako prestatu diren entseguetan parte har dezake. Hainbat zapatu eta eguenetan izango dira entseguak, "norberak ahal edo nahi dituen egunetan etortzeko". Zapatuetakoko entseguak (urtarrilak 24, otsailak 21, martxoak 28, maiatzak 9 eta maiatzak 23) Mogel Isasi ikastetxean egingo dira, 11.00etan; eta eguenetakoak (otsailak 5, martxoak 5, apirilak 16, maiatzak 14 eta maiatzak 28), berriz, Portalean, Kezka entsegu gelan, 20.00etan. Parte



hartzeko gogoia duenak honako hiru bide hauetatik eman dezake izena: Whatsapp bidez (605711429), emaila idatzita (50euskaljaia@gmail.com) edo Klub Deportiboko webgunean, dantzen atalean ekitaldiari eskeini dioten tartean sartuta (deporeibar.com/dantzak).



Jorge Imaz Bolinaga
KOMUNITATEEN
ADMINISTRATIOA

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.
Tlf. 943 53 03 03
imazjorge@hotmail.com



K21
MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JULE, etxeko sorgintxo politta, daganeko lau urtetxo dozuz-eta! Patxo haundi bat amamen eta aitxiten partetik.



Zorionak, MALEN, abenduaren 30ian hiru urte egin zenduazelako!! Muxu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIALEN, neska haundi, hillaren 3an hiru urtetxo bete zenduazeten-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAREN, atzo hiru urte bete zenduazelako. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Noah eta Nahiaren partez.



Zorionak, NADIA, domekan sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat gurasuen eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HODEI, hillaren 9xan bi urte bete zenduazeten-eta. Patxo bat famelixaren eta, batez be, zure anaixa Ametsen partez.



Zorionak, ALAIN, bixar hamar urte egingo dozuz-eta. Patxo potolo bat, mutil haundi, etxeko guztien partez.




Zorionak, MIKEL, hillaren 4an hiru urte bete zenduazeten-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, NEREA arrebaren partez.



Zorionak, GORKA eta EKHI, hillaren 8xan eta 3an urtiak bete dozuez-eta. Patxo haundixa etxekuen eta, batez be, Eñauten partez.



Zorionak, JANA (gaur zazpi urte egitten dozuz) eta PABEN (bixar 33 beteko dozuz). Ondo ospatu eguna, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, aitaxo ERDI eta JULES! Bost urte! Ze pasada! Laztan erraldoiak!



Zorionak, ANDER, astelehenian 9 urte beteko dozuz-eta. Maite zaittugu. Etxekuen partez.



Zorionak, ALANA, hillaren 9xan lau urte bete zenduazeten-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ANE, bi urte egin dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Olatz zure ahiztiaren partez.



Zorionak, SABRINA, martitzenian urtiak bete zenduazeten-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JULE, zure bederatzigarren urtebetetzian. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GARAZI, aurreko zapatuan hiru urte egin zenduazeten-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JON, abenduaren 29xan lau urte egin zenduazeten-eta. Patxo haundi bat danon partez!



Zorionak, IRADI, domekan bost urte bete zenduazeten-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

17an: 19.45. 22.30
18an: 17.00, 20.00
19an: 20.30

"Dos días, una noche"

Zuzendaria: J.P. Dardenne



(2 ARETOAN)

17an: 17.00, 19.45. 22.30
18an: 17.00, 20.00
19an: 20.30

"Rastros de sándalo"

Zuzendaria: Maria Ripoll



(ANTZOKIAN)

17an: 19.45. 22.30
18an: 20.00
19an: 20.30

"V3nganza"

Zuzendaria: Oliver Megaton



(1 ARETOAN)

17an: 17.00
(ANTZOKIAN)
18an: 17.00

"Niko 2: Hermano pequeño"

Zuzendaria: Miguel Arteta



BARIXAKUA 16

GAZTELEKUA

16.30. "Gaztetxef" eta "Disparatea". Indianokuan.

EKITALDI POLITIKOA

19.00. EH Bilduren zerrendaburua aurkezteko ekitaldia. Untzagan.

KONTZERTUA

20.30. Jimmy Barnatan& Band (8 euro). Coliseoan

ZAPATUA 17

ANTZERKIA

17.00. "Opera abeslaria", Deabru Beltzak taldearen eskutik (5 euro). Coliseoan.

GAZTELEKUA

17.00. "Gaztetxef" eta "Disparatea". Indianokuan.

UMEENDAKO ZINEA

17.30. "Como entrenar a tu dragon 2". El Corte Inglesean.

LAGUN TALDEA

17.30. "Desmadre Tours LT" ikuskizuna (euro bi). Hezkuntza Esparruan.

DOMEKA 18

DANBORRADA KONTZERTUA

12.30. Usartza Txistulari Taldearen, Eibarko Danborradako ordezkarien eta Molto Vivace metal boskotearen eskutik. Elena Perezek zuzenduta. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokuan.

ASTELEHENA 19

ASTE GASTRONOMIKOA

18.00. San Andres eskolaren 50. urteurrenaren harira, sukaldaritza tailerra ikasle eta gurasoentzat. Aurora Cid (Nutrieibar). Portalean (sukaldean).

HITZALDIA

19.00. Jesus M^a Agirre alkate ohiak bere esperientziaren inguruan egingo du berba. Batzokian.

MARTITZENA 20

IKASTEN

10.00. "Cerebro en forma" hitzaldia, Emma Okamikaren eskutik. Armeria Eskolan.

JOSKINTZA TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

ASTE GASTRONOMIKOA

18.00. San Andres eskolaren 50. urteurrenaren harira, sukaldaritza tailerra ikasle eta gurasoentzat. Juan Luengo (Iruki sagardotegia). Portalean (sukaldean).

HITZALDIA

18.30. LOMCE legeari buruzkoa. Portalean

EGUAZTENA 21

IKASTEN

10.30. Antzerkia. Portalean.

TAILERRA

11.00. Liburutegiko mailegu digitalaren ingurukoa. Liburutegian.

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: "RGI ¿Solidaridad? ¿Arma politica? ¿Disculpa para la xenofobia?". Untzagako jubilatutuetan.

ASTE GASTRONOMIKOA

18.00. San Andres eskolaren 50. urteurrenaren harira, sukaldaritza tailerra ikasle eta gurasoentzat. Enrique Vicente (Portalea jatetxea). Portalean (sukaldean).

MATXARIATUZI

18.30. Parte-hartze prozesuaren barruko saioa: "Agertokia". Armagintzaren Museoa (Portalean).

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Comunicar con eficacia para relacionarnos mejor" hitzaldia, HH-ko umeen gurasoentzat. La Salle Isasin.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 22

IKASTEN

11.00. Elkarteen urteko batzarra eta bazkaria. Armeria Eskolan.

ASTE GASTRONOMIKOA

18.00. San Andres eskolaren 50. urteurrenaren harira, sukaldaritza tailerra ikasle eta gurasoentzat. Mireia Alonso (Krabelin / Tekniker). Portalean (sukaldean)

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Autoritatea eta disziplina" hitzaldia, HH-ko umeen gurasoentzat. J.A. Mogel ikastolan.

KALERATZEAK STOP

11.00. Kaleratzeak Stop Debarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

erakusketak

✓ Urtarrilaren 31ra arte

JOAN MIMOREN argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan*
JON AGIRREREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
JUAN ZAMORAREN argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

✓ Otsailaren 1era arte

"EIBAR K.E. / 75. URTEURRENA" erakusketa. *Portalean.*

✓ Martxoaren 1era arte

JOSEBA ARGINZONIZ-EN erakusketa. *El Corte Inglesean.*

HOROSKOPOA

ARIES

Gabonetan topera ibili zara: hori nabari da. Apur bai zaintzea gomendatzen dizut; gorputzak benetan eskertuko dizu.

TAURUS

Lasaitu! Bolada txarra pasatzen ari zara, baina gauzak aldatuko dira. Asteburutik bertatik aurrera dena ondo joango da.

GEMINI

Ez baduzu zure iritzia ematen, zertarako kexatu? Gauzak momentuan esan behar dira; gero beranduegi izan daiteke-eta.

CANCER

Beharpenetan beharrezkoak diren gauzak erosi eta ez merke topatzen duzun guztia. Dirua zaindu behar duzu.

LEO

Gabonetako oporrekin behar zenuen atsedena izan duzu. Pilak kargatuta daukazu orain edozeri aurre egiteko.

VIRGO

Lagaizu behingoz mugikorra lagunekin zaudenean; gero ez esan ez dizutela ezer kontatzen. Ez zara enteratzen.

LIBRA

Lagun bi daude zutaz maiteminduta: ez zara konturatu? Ba eurek ez dizute begirik kentzen. Gertu-gertu dituzu...

SCORPIUS

Buruan dituzun ideia guzti horiek bateren bati kontatu. Ideiak aurrera eramateko laguntza beharko duzu-eta.

SAGITTARIUS

Zurea bai sex-appeal! Zenbat ligatu duzun Gabonetan... Asteburu honetan ere aukerak izango dituzu, "irresistible".

CAPRICORNIUS

Zapatuan ezuste izugarria jasoko duzu: aspaldi ezagutu zenuen lagun harekin egingo duzu topo. Ez galdu aukera.

AQUARIUS

2014an gauza asko lortu dituzu, agian espero ez zenituenak ere. Baina, kontuz, ez pentsa edozer lor daitekeenik.

PISCIS

Ez laga dena azken momentura arte, gero besteek konpondu behar izaten dituzte-eta zure arazo guztiak.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Jose Benito Saiz Diez. 86 urte. 2014-XII-20.
- Jose Luis Saez de Ojer Valza de Vallejo. 90 urte. 2014-XII-30.
- Luis Herrero Martin. 95 urte. 2014-XII-30.
- Ivon Muguruza Arriola. 73 urte. 2014-XII-31.
- Enrique Vozmediano Alcalde. 89 urte. 2014-XII-31.
- Primitivo Torre Diego. 86 urte. 2014-XII-31.
- Isabel Eguren Larrañaga. 95 urte. 2015-I-1.
- M^a Isabel Lizeaga Ezama. 51 urte. 2015-I-1.
- Pedro Gisasola Gisasola. 52 urte. 2015-I-5.
- Ignacio Aizpuru Arzalluz. 90 urte. 2015-I-7.
- M^a Luisa Irasuegi Azpitarte. 89 urte. 2015-I-7.
- Teresa Bidaurrazaga Pereira. 90 urte. 2015-I-7.
- Juncal Ramos Anabitarte. 40 urte. 2015-I-7.
- Pilar Domeque Jesus. 99 urte. 2015-I-8.
- Timoteo Goenaga Askasibar. 83 urte. 2015-I-9.
- M^a Isabel Errasti Bolinaga. 84 urte. 2015-I-10.
- Juan Goitia Orueta. 85 urte. 2015-I-10.
- Lorenza Lizarralde Zurutuza. 79 urte. 2015-I-11.
- Manoli Velasco Gonzalez. 78 urte. 2015-I-11.
- Ramon Prieto Ibañez. 93 urte. 2015-I-11.
- Eugenio Izagirre Agirrebeña. 93 urte. 2015-I-13.
- M^a Angeles Mardaras Oñate. 99 urte. 2015-I-13.
- Jose Santamaria Bilbao. 86 urte. 2015-I-13.
- Julia Garcia Bilbao. 91 urte. 2015-I-14.
- Mireia Ormaetxea Luis. 31 urte. 2015-I-14.
- Angel Albizuri Ormaetxea. 93 urte. 2015-I-14.

jaiotakoak

- Maddi Elorza Andonegi. 2014-XII-19.
- Nora Paleteiro Tagle. 2014-XII-20.
- Daniella Osarere Madu. 2014-XII-24.
- Iker Peña Fernandez. 2014-XII-30.
- Noa Latorre Guijarro. 2014-XII-31.
- Saber Ayoub Djorf. 2014-XII-31.
- Shiza Minahiel Mahmood Kausar. 2015-I-1.
- Illari Aranzabal Castro. 2015-I-2.
- Aiora Larrañaga Martinez. 2015-I-6.
- Unax Fernandez Abanto. 2015-I-7.
- Xabier Salcedo Santos. 2015-I-7.
- Leire Fernandez Lasuen. 2015-I-8.

farmaziak

- ✓ **barixakua 16**
EGUNEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
- ✓ **zapatua 17**
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- ✓ **domeka 18**
EGUNEZ Larramendi (Calbeton, 19)
- ✓ **astelehena 19**
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- ✓ **martitzena 20**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguztena 21**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguna 22**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- ✓ **barixakua 23**
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI -2015EAN-
Elorza (J. Gisasola, 18)

SUDOKUA

	5	6		8			7	
	9			4	2	8		
2					6		9	
8		1					4	3
	4		8					6
		3	7	6			8	
	2			9		1	6	

3	4	9	5	7	1	2	6	8
6	2	7	9	3	8	4	1	5
8	1	5	2	6	4	9	3	7
1	3	2	6	5	7	8	9	4
5	6	8	1	4	9	7	2	3
9	7	4	8	2	3	1	5	6
7	9	1	3	8	5	6	4	2
4	5	6	7	9	2	3	8	1
2	8	3	4	1	6	5	7	9

AURREKOEN EMATZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.50, 19.50 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARRO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARRO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egurnero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egurnero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egurnero: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egurnero: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egurnero: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egurnero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko pisua salgai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 70 m². Garajea eta trasteroa egiteko aukera. Tel. 943-530556 eta 686-679518.
– Sorailuzen Babes Ofizialeko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea eta trasteroa barne. Dena kanpora begira. Jantzitza eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 617-976263.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.
– 3 logeletako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.
– 1/2 logeletako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-282203.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-500 euro. Tel. 632-569245.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Gazteentzat prestatutako lokala alokatzen dit. 18 urtetik gorakoentzat. 70 m². Tel. 679-425467.
– Garaje itxia alokagai Txomon. Tel. 657-771496.
– Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean. Tel. 617-688311.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Erizaintza ikaslea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta taberna zerbitzari edo sukaldari jarduteko. Tel. 602-022174.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 645-366850.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 608-523426.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketara lanak egin... Baita asteburuetan ere. Tel. 638-338816.
– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 648-180233.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldetz edo gauzez nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 608-886701.
– Emakumea eskaintzen da gauzez garbiketara lanak egiteko. Tel. 631-098995.
– Neska eskaintzen da 13.00etatik aurrera nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 620-757528.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-746668.
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 608-376387.
– Emakumea eskaintzen da hotel kamarera jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 677-259560.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-258913.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak (baita gauzez ere) edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 674-713262.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako: nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile moduan... Esperientzia. Tel. 674-342769.
– Neska eibarrara eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
– Emakumea euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 666-008974.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-362571.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-408528.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 690-223601.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-199533.
– Emakumea eskaintzen da soziedadek garbitzeko. Tel. 638-421827.
– Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak eta plantxa orduka egiteko. Esperientzia. Tel. 622-037598.
– Pertsona nagusiak zainduko nituzke orduka. Tel. 626-197217.
– Eibarko neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta eskolatik jasotzeko. Tel. 658-845081.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Erreferentziak. Tel. 662-277136. Estefani.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Lizentziatu euskalduna eskaintzen da klase partikularrek emateko eta umeak zaintzeko. Tel. 639-976232. Ane.
– “Gantxiloa”, “gantxilo tunisiarra” eta “wow gantxiloa” ikastaroak ematen ditut Itzamna akademian (Bitor Sarasketa). Zapatuetan, hamabostean behin (17.00etatik 19.00etara). Tel. 649-100185.
– Ingeleseko klase partikularrek ematen dira, 4 urtetik aurrera. Talde mugatuak. Esperientzia EEBB-etan eta Euskal Herrian. Tel. 651-706303.
– DBH eta Batxilergoko Matematikak etaberrak klaseak ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
– Fisika eta Matematikako klase partikularrek ematen ditut. Gehienez 4 laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
– Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketarako prestaketa: EGA, HABEren perfliak, Osakidetza perfliak... Tel. 620-608065.
– Arkitektura ikasketaduna eskaintzen da Batxilergo Teknikoko eta DBH 3-4 mailetako klase partikularrek emateko. Tel. 679-843282.
– Magisteritzan diplomatuar klase partikularrek ematen ditu Amañako zonan. LH eta DBH 1 eta 2. Edozein irakasgai. Esperientzia. Tel. 617-184931. Maite.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– J.M. de Barandiaran-en “Obras Completas”-eko tomoak (1etik 15era) salgai. Ilustrazioekin. 180 euro. Tel. 943-752480 eta 616-533796.
– Ontzi-garbigailua, Balay markakoa, salgai. Egoera onean. Merke. Tel. 636-906921.
– Organo elektronikoa salgai. 300 euro. Tel. 943-752480 eta 616-533796.
– Labea duen butanozko sukaldea salgai. Ia berria. Merke. Tel. 628-872295.
– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
– Paperezko zakuak josteko makina salgai. Prezio onean. Tel. 665-701424.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Quechua motxila galdu zen Argatxako jardinetan urtarillaren 9an. Sarituko da. Tel. 676-729551.
– Eibarko Kirol Sarien ekitaldian baten batek buff-a laga zuen ahaztuta. ...eta kitto!-n jaso dezake. Tel. 943-200918.

MATRIKULA ZABALIK



Euskaraz
blai
Empápate
de
Euskera

ESKAINZA

**ETORRI eta
GALDETU!!!**

- Maila guztiak (4. maila barne)
- Goizeko 08.00etatik iluntzeko 20.30era
- Azterketetarako prestakuntza
(HABE, EGA, IVAP, Osakidetza...)
- Aurrez aurre zein on-line
(BOGA)
- Tarifa bereziak (langabetuentzat ere bai)

Eibarko Udalak eta HABE kdiruz lagundutako zentroa (TARIFA BEREZIAK)

Udal Euskaltegian www.udaleuskaltegiak.eus



Tfnua: 943 70 09 12

Faxa: 943 82 00 89

euskaltegia@eibar.net

Bista Eder 10 -PORTALEA-



**UDAL
EUSKALTEGIAK**

14-15
IKASTURTE ACURSO




Arragueta, 20 - behea
943 530642

FISIOTERAPIA

ZENTRUA

Ane Mendiá

970 kol. zkia.



Indiba terapia

Kirol lesioak

Masajeak

Tendinitisak

Bizkarreko mi-
nak

Esginzeak


Etxez-etxeke
zerbitzua



ane_mendia@hotmail.com



UNBE



ORBEA



PADELPISTAK



IGERILEKUA



TENISPISTAK



SPA



ZORIONAK!

eta

2015.

URTE

Kirolari

XOM!



ORBEA



Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar

